

Ardura

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Maiatzaren hasieran, orriotan idatzi nuen normaltasun berrirako trantsizioa iragarria zutela agintariek. Badi-rudi zerbait aldatu den itxura eman nahi izan dutela, baina arazorik ez da konpondu. Iragarri dizkigute covid-19ak eragindako krisiari aurre egiteko neurriak. Akaso, komeni da ohartzea pandemiak ez duela krisirik eragin, lehendik zegoenaren ondorioak areagotu baizik ez duela egin. Eta, beraz, neurriak ez direla oraingo egoera arintzeko hartu behar, egoera honeta-

ra ekarri gaituen sistema aldatzeko baizik.

Izan ere, banketxeei eta aberatsei zergak ezarri orde, kulturaren alde apustu egin orde, edota lan erreforma bertan behera utzi orde, bizitza normala zer den zehaztu digute: irekita dauzka-gu tabernak eta dendak kontsumorako, ireki zituzten mugak oporretara bidaia-tzeko, eta, herri honen zati batean behintzat, itxaron zuten hauteskunde-ak pasa arte maskara derrigortzeko. Eta orain, egun batetik bestera, herritarrei arduratsuak izateko eskatzen diete.

Izan ere, zeinen arduragabeak batzuk, ezta? Gazteak behintzat bai, zenbaiten ustez.

Eta norena da eguneko zentroak itxe-aren ardura? Edo udalekuak bertan behera uztearena? Norena da gizarte zer-bitzuetatik ase beharko liratekeen zaintza lanak etxeetara itzuli eta zaur-garrienen lan zama areagotzearen ar-dura?

Maskara? Beharko dugu, bai. Zenbai-ten kudeaketa ereduak botatzen duen usain txarretik babesteko, besterik ez bada. •

Zuberoa

Joxean Agirre

Badaude edonoren esku dauden luxuak eta horietako bat da Do-nazaharretik abiatu eta, Beorlegi-ko herria zeharkatuz, mendiko errepide ikusgarrietan gora Ahüzkiko Bentara igotzea. Horretarako, auto bat be-har da eta pazientzia pixka bat, bidean lauzpabost artalde uxatu behar izaten baitira eta, zailagoa dena, behi taldeak ere bai, herrialde horretako behiak bezpera-ko beroa aprobetxatzeko galtzadaren gai-nean lo egiteko ohitura baitute.

Benta hori da Pirinioei begira egoteko talaia-rik ederrenetako bat. Bertako itu-riak kantu bat baino gehiago inspiratu ditu. Bainuetxe ere izan zen (jauntxoak mando gainean igotzen ziren Altzürükü-tik) eta gaur bazkaltoki ikusgarria da.

Urrunean Pirinioak eta Zuberoako mendiak bertatik bertara miresteko biga-rreren talaia bat Atharratzeko Madalena er-mita da. Erromes leku garrantzitsua izan

zen. Elizaren kanpoko horman 2000. ur-tean oroitarria ipini zioten Jean Pitrau la-borari mugimenduko liderrari. Mendi horren maldan, Erbinia baserrian, jaio zen eta bertan hil zen 1975ean. Aguxtin Errotabeherek “Jean Pitrau, la révolte des montagnards” liburua eskaini zion 2011n. Bertzaizek hari buruzko pastoralak idatzi zuen eta Atharratzeko herriak taularatu zuen 2016an. Eta “Argia” astekariaren La-rrun gehigarria eskaini dio Pello Zubiriak egunotan. Jeunesse Agricole Chretienne taldean hasi zen (urte batzuk geroxeago Hegoaldean Baserri Gaztedi izango zena) eta ELB sindikatuak aita pontekotzat jo-tzen du gizon hau. Europako nekazari gazteak etortzen zitzaizkion etxera eta Edgar Pisani Nekazaritza ministroa ere etorri zitzaion, auzokoen harridurarako helikopteroz, bisitan, 1962an.

Jean Pitrauk urteak eman zituen Atha-rratzeko Udalean zinegotzi ere.

Lapurdiko udaletxe batzuetara alkate abertzaleak iritsi diren honetan ez le-goke gaizki 80ko hamarkada hasierako Zuberoako lehen alkate abertzaleak go-goratzeara, Larrainekoa eta Pagolakoa, esate baterako. Bigarren hau, Mixel Etxeber, herrian bertan bizi da orain eta luxua da berarekin hizketaldi bat izatea. Ahotsak plataforman bere kon-takizun batzuk bilduta daude, baina se-guru nago Mixelen ibilerek liburu bate-rako ematen dutela. Hori bai, protagonismoa Fabien Bereterbide apaizarekin partekatu beharko du, oso gutxitan ibili baitira apaiza eta alkatea elkarrekin hain estuki lotuta. Fabien 2015ean hil zen. Garai hartan kontatu ohi zuenez, herriko eskuindarrak ez zi-ren elizara joaten bera abertzalea zela-ko eta abertzaleak ezkerrekoak izaki jo-aten ez zirenez, obratan hasi behar izan zuen lanean. •